

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****Bakioko udal arautegi zehatz batzuk behin betiko onarpena**

Bakioko Udalbatzak, 2017ko urriaren 26an egindako ohiko bileran, erabaki hauek hartu zituen:

- Lizentziarik behar ez duten ekintzen jardueretarako establezimenduak zabaltze-koari buruzko udal-ordenantza hasiera batean onartzea.
- Premia larrian dauden pertsonen Bakioko udal zergak ordaintzeko laguntzen udal araudia hasiera batean onartzea.

Gauzak horrela, espedienteak jendaurrean azaldu ziran hogeita hamar egun balio-dun epean, udal ediktu oholean, udaleko web gunea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ipinitako iragarkien bidez.

2017ko urriaren 26ko erabaki horiek eta haiei buruzko aurrerakin guztiak arauak agintzen duten epean jendaurrean ezarri eta inork be erreklamazio edo alegaziorik aurkeztu ez duenez gero, erabakiok, behin betiko onetsi direla ulertu beharko da, betiere toki araubidearen oinarriak arautzen dituen legearen 49. artikulua arabera.

Horrela bada, ordenantza horien aldaketak oso-osoan argitaratzen dira.

Erabaki horien aurka administrazioarekiko auzibide errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, testua argitaratu eta bi hilabeteko epean, betiere iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita. Horrela bada, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46 artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.

Bakion, 2017ko abenduaren 28an.—Jarduneko Alkatea, María Isabel Barturen Lasa

A) BAKIO UDALERRIKO TRIBUTUAK PREMIAZKO EGOERETAN ORDAINTZEKO LAGUNTZEI BURUZKO ARAUTEGIA

Toki Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bere 25. artikulua e) letran udalerriei esleitzen dizkie gizarte zerbitzuak emateko eta gizarteratzeko arloko eskumenak, betiere goragoko mailako arautegiaren barruan.

Eskumen horiek egikaritzuz, Bakioko Udalak berebiziko interesa dauka zenbait kolektiboaren gizarte baldintzak hobetzen laguntzeko.

Aurrekoa lortze aldera, tributua ordaintzeko laguntzei buruzko arautegi hau onartzen da, premia egoera larrietan dauden Bakio Udalerriko pertsonen zuzenduta. Arautegiak, beraz, zenbait kolektiboaren berezitasunak aintzat hartu eta euren premiak apaltzeko neurriak ezartzen ditu eta, zehatzago, zehaztutako tributuen urteko kuotaren batuketaren %50eko laguntza ezartzen du. Tributua horiek etxeko edozein kideren titulartasunekoak izan daitezke, baldin eta arautegi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

1. artikulua.— *Edukia eta xedea*

Arautegi honek arautzen dituen laguntzek xedetzat dute Bakio Udalerriko biztanle premiadunen sostengu ekonomikoari laguntzea, ohiko ingurunean jarraitzea ahalbidetzeko, deserrotze egoerak saihestuz.

2. artikulua.— *Hartzaileak*

Diru-laguntzak jaso ahalko dituzte baliabide ekonomiko urriak dituzten Bakioko bizilekuek, baldin eta haien kideak Bakio Udalerrian bizi badira eta bertan erroldaturik badaude eta hurrengo artikuluek ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

**3. artikulua. — Zuzkidura**

Laguntza hauen zuzkidura orokorra izango da udal aurrekontu partidak ekitaldi ba-koitzerako aurreikusitakoa.

4. artikulua. — Zenbatekoa

Onuradun bakoitzak jasoko duen zenbatekoa honakoa izango da: deialdia argitaratzen den ekitaldian sortzen diren eta bizilekua zamatzen duten tributuen zenbatekoaren %50ekoa.

Arautegi honen ondorioetarako, bizilekua zamatzen dutenak honakoak dira: ondasun higiezinaren gaineko zerga, baldin eta ohiko bizilekua bada; trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga, gehienez ere ibilgailu bat etxebizitzako; hondakinak jaso eta tratatzeko prestazioagatiko tasak eta udal saneamenduko zerbitzuak emateagatiko tarifak, baldin eta ohiko bizilekuari loturik badaude.

5. artikulua. — Baldintzak

Diru-laguntza jaso ahal izateko, honako baldintza hauek guztiak bete beharko dira aldi berean:

1. Laguntza eskatua izan den tributuaen titularra Bakio udalerrian erroldaturik egotea.
2. Familiarteko errentaren estandarizazio sistemari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 31/2015 Dekretuaren arabera kalkulaturako bizilekuaren sarrera guztiak ez gainditzea in-darrean dagoen urteko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LGS) 14 hilekorako bider 1,5.
3. LGSren halako 3,5etik gorako balioa izango duen ondasunak, finantza aktiborik edo jabetzarik ez izatea, betiere ohiko bizilekua bazter utzita.
4. Gorago aipatu diren eta urtean diru-laguntza eskatu duenari sortu zaizkion tribu-tuen ordainagiriak bizilekua osatzen duten kideetariko baten izenean egotea.
5. Ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez, etxebizitzaren katastro balioa 120.000 eurotik gorakoa ez izatea.
6. Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, turismo edo mo-tozikleta motako ibilgailua izango da, gehienez ere 11,99 zerga zaldiko eta 125cc-ko potentzia izango duena, hurrenez hurren.
7. Bizilekuko kide bakar batek ere eskubiderik ez izatea ohikoa ez denaz bestalde-ko etxebizitzaren batean.
8. Lehenago ere diru-laguntzaren xede diren ordainagiriaren kuotak ordaindu izana.
9. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak ezarritakoaren arabera, laguntza hauen onuradunek beterik izan beharko dituzte Bakioko Udalaren toki oga-sunarekiko betebeharrak, betiere laguntzak emateko ebazpena eman aurretik. Ondorio horietarako, hori betetzen dela ulertuko da borondatezko epean mugaeguneratu den eta ordaindu ez den zorrik ez badago edo zor hori atzeratzeko edo zatiitzeko ordainketa plan bati loturik badago udalaren diru bilketan eta horretan ez-betetzetik egon gabe.

Arautegi honetan eskatutako betekizunak egiaztatzeko, eskatzaileak udal adminis-trazioari baimena eman beharko dio besteei beharrezko informazioa eskatzeko eskaera-ren unean aurkeztutako dokumentazioari buruz.

6. artikulua. — Laguntzaren ordainketa

Laguntzaren ordainketa banku transferentzia bitartez egingo da.

7. artikulua. — Deialdi publikoa eta eskaerak

Laguntza jasotzeko prozedura deialdi publiko bidez izapidetuko da eta hori arautegi honetan ezarritakoari lotuko zaio; prozedura eskaera aurkeztean hasiko da.

Bete beharreko formularioa nahiz aurkeztu beharreko epea eta tokiak deialdian eza-rritakoak izango dira.

Eskaerak bizileku bakoitzeko egingo dira eta eskatzaile batek egin beharko du, betie-re tributua bizilekuko kide desberdinen izenean ager daitezkeela bazter utzita.



Eskatzaileak subjektu pasiboak identifikatu beharko ditu, bai eta titulartasunean dituduzten tributuak ere.

8. artikulua. — Ebazpena

Aurkeztutako eskaerak ikusita, atal eskudunak egindako ebazpen proposamen bidez zehaztuko da zeintzuk diren laguntza eta haren zenbatekoa jasotzeko eskubidea duten eskatzaileak, baldintzak betetzen badituzte. Gauzak horrela, udalbatzak hartu beharko du ebazpena.

Eskaerak ebatzi beharko dira egiten direnetik hiru hilabeteko epean eta jakinaraziko dira administrazio erkideari buruzko prozedura arautzen duen arautegiak ezarri bezala. Epe horren barruan ebatzen ez diren eskaerak ezetsi direla ulertuko da.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren kontra interesdunek berraztertze errekurtsua aurkeztu ahalko dute hilabeteko epean edo administrazioarekiko auzi errekurtsua edo haien interesak defendatzeko komenigarritzat jotzen dituztenak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena: Udal arautegi hau indarrean sartuko da lurraldeko aldizkari ofizialean argitaratu eta hamabost eguneko epean.

Arautegi honek men egiten dien tributuei dagokienez, laguntzen lehenengo deialdia 2017an izango da.

Bigarrena: Alkatetza beren beregi gaitzen da arautegi honen exekuzioan sor daitezkeen gaiak ebazteko.

B) LIZENTZIARIK BEHAR EZ DUTEN EKINTZEN JARDUETARRAKO ESTABLEZIMENDUAK ZABALTZEKOARI BURUZKO UDAL-ORDENANTZA

Ordenantza hau egin da udal-araudia jarduera jakineko ekintzen aldaketa legegileetara moldatzeko asmoz, eta legeriaren arabera, proiekturik eskatzen ez duten hauekin lotutako lanen exekutatzea, hauetarako aurretiko jakinarazpena beharrezkoa da. Ohiko irekitzeko leizentziaren orde, kasu batzuetan honen iraupenari kalterik egin gabe.

Arau berri honekin, Bakio udalak bete nahi ditu ondorengo legeetako aurreikuspenak: azaroaren 23ko, jarduetarako sarbide librearen eta bere ariketaren gaineko 17/2009 legea. Abenduaren 22ko, 25/2009 legea eta Eusko Legebiltzarraren apirilaren 23ko lege batzuen aldaketari buruzko 7/2012 legea, 2006/123/CE zuzendaritzara egokitzeko, barne-merkatuko zerbitzuei dagokiona.

Era berean, udal-ekimen arauak abenduaren 26ko, 12/2012 legearen eskakizunetara egokituko dira. Lege hau merkataritzaren askapenerako eta zehaztutako zerbitzu batzuen premiazko neurriei buruzkoa da. Irekita geratuko da ardurako aitopenenaren mekanismoen hedapena edo ekintza batzuen aurretiko jakinarazpena. Azken ekintza hauen kasuan etorkizunean parte-hartze erregimena hedatuta ikusten baldin badute bai estatuko legeagatik, bai lege autonomikoagatik.

Gure Autonomia Erkidegoak ekainaren 30eko, 2/2006 Euskal Herriko lurzoru eta hiri-gintza legearen 207.5 artikulua aldatu du gerokotasun kontrolak behar dituzten ekintzak ezarri ahal izateko, alde batera utziz partikularren jarduera ekonomiko batzuen irekitzeko aurretiko lizentzien eskaera.

«Kasu batzuetan, udal-ordenantzetan hala jarrita, lizentzia eskuratu beharraren orde, aurretiaz jakinarazpena egin ahal izango dio, idatziz, interesatuak udalari. Kasu horiek hauek izango dira: garrantzi tekniko txikikoak izateagatik proiektu teknikorik aurkeztu beharrik ez duten obrak; gogaikarri, osasun-galgarri, kaltegarri eta arriskutsuak ez diren jarduera; eta ordenantzek aurreikusitako beste jarduera batzuk. Udalak une oro egiaztatu ahal izango du eskatutako baldintzak betetzen direnez, eta jarduera etetea agindu ahal izango du, ebazpen arrazoitua emanda, harik eta baldintzetara egokitu arte.»

**1. artikulua. — Xedea**

1. Ordenantza honen xedea hauxe da: aurretiko jakinarazpenaren erregimenaren erregularizazio zehaztutako ekintza batzuk ezartzeko kaltegarria ez den izaeraren edo osasunerako arrisku eskasa duenaren arabera, edo persona eta ondasunen segurtasunaren arabera, ondasun hauek ez dute eraginik izango ondare artistiko-historikoan eta ez dute erabilera pribatiborik edo publikoak diren ondasunen okupaziorik eragingo, edo aurretiko lizentziaren beharraz baztertzen duen legerik badago..

Ekintza hauek ez daude autorizazio-erregimen baten eraginpean honek ez duelaiko interés orokorreko ezinbesteko arrazoi baten justifikaziorik, modu egokitzat hartu da ekintzaren gerokotasun kontrola.

2. Aurretiko jakinarazpena da interesatuek erabiltzen duten dokumentua, udal-administrazioei jakinarazteko euren datu identifikatiboak, beste baldintza eta eskatzen diren beste dokumentu batzuk, ekintza bati hasiera emateko. Hau guztia, administrazio publikoen erregimen juridikoaren, azaroaren 26ko, 30/1992 legearen, 70.1 artikuluaaren arabera eta prozedimendu administrativo arrunta eta ordenantza honen 4.artikuluaaren arabera.

3. Aurretiko jakinarazpenak, suposizioetarako eta ordenantza honetan bildutako baldintzekin, ekintzaren hasiera onartuko du, aurkezten den egunetik, Administrazio Publikoak egotzita dituen egiaztatze fakultateak, kontrolak eta ikuskapenak utzi gabe.

2. artikulua. — Lizentziaren inexistentea eta aurretiko jakinarazpenarekiko lotura

1. Aurretiko jakinarazpen prozedurari lotuta daude ordenantza honen 1.1 artikulua mugatzen dituen ekintza eta jarduerak, hauek ekitaldirako ez dute aurretiko udal-lizentziarik beharko.

Zehazki, ordenantza honen xede diren ekintzen irekierak, instalazioak, hedatzeak edo aldaketek behar dute aurretiko jakinarazpena, beti ere baldintza hauen osotasuna biltzen dutenean:

a) Aurretiko jakinarazpena aurkeztean, lokalak funtzionamendurako baldintza errealak izatea ekintzaren ekitaldirako obren exekuziorik behar ez izateagatik, edo lanak egiteko beharra izanez gero, honek, indarreko legeriaren arabera proiektu teknikoaren beharra ez izatea.

b) Ekintza baimendutako eta onartutako erabilera baten barne egotea, hirigintza-plangintza eta udal-ordenantzekin bat etorriz.

c) Erakusketarako eta salmentarako erabilgarri diren 300 m² baino handiagoko azalera ez duen establezimendu iraunkorrak izatea.

d) Sailkatutako jarduerako ingurune-lizentzia behar ez izatea.

e) Ondare historiko-artistikoaren gaineko eraginik ez izatea edo erabilera pribatiboa edo jabari publikoaren okupazioa ekartzea.

2. Udalak eguneratuta izango du, indarrean dagoen legeriaren arabera, aurretiko jakinarazpena behar dutenen ekintza batzuen zerrenda. Zerrenda hau egoitza elektronikoa argitaratuko da.

3. Era berean, aurretiko jakinarazpenarekiko lotura izango dute ordenantza honetako 1.1 artikuluan azaltzen diren ekintzei lotuta dauden obrek eta salmentarako izango diren eta obra-proiektu baten beharra ez duten lokalen egokitzapenerako obrek.

4. Ordenantza honek ez dio eragiten beste lizentzia batzuk edo ikuskizun publikoko legeriak eskatutako baimenak izateko beharri edo beste legeria sektorial bati.

3. artikulua. — Lizentziarekiko lotura

1. Beharrezkoa izango dute irekitzeko lizentzia, ekintzaren hasierarako lizentzia edo udal-baimena legeak horrela agintzen duen ekintzek hauek ez daudenean sailkatutako ekintzaren ingurumen lizentziarekin lotuta, ondare historiko-artistikoan edo erabilera pribatuan edo jabari publikoko ondasunen okupazioan eragina dutenean.



2. Obra-baimena beharko dute, azaroaren 5eko, eraikuntzaren antolamenduaren 38/1999 legearen arabera, eraikuntza-proiektu baten beharra duten jarduerak.

3. Erabilera pribatua edo jabari publikoko ondasunen okupazioaren kasuan lizentziaren izapidea edo baimena, erabilera pribatiboa edo jabari publikoaren okupazioa baimentzen duen habilitante titulua erekin batera egingo da. Berariazko ebazpen eza hiru hilabeteko epean gaitzetsitako eraginak izango ditu.

4. Ondare historiko-artistikoan eragina duten ekintzen kasuan, aurretik izan beharko dira ondare kulturalaren legeriak exigitzen dituen baimenak eta txostenak. Berariazko ebazpen eza 3 hilabeteko epean balioztatuta izango da, eskudun organo autonomikoaren txostenetan edo baimenetan agertzen baldin bada, kontrako kasuan gaitzetsitako izaera izanik.

5. Artikulu honen barne dauden ekintzei lotutako obrak egiteko, beharrezkoa izango da dagokion obra-baimena aurretik izatea.

6. Artikulu honek aipatzen dituen baimenak edo lizentziak eskatzeko, kontuan hartuko da aplikagarria den araudia.

4. artikulua. – Prozedura

1. Aurretiko jakinarazpena aplikatzen zaion ekintzaren titularrak edo sustatzaileak, ordenantza honetan agindutakoaren arabera, aurretiko jakinarazpena modu egokian bete beharreko eskaria eginez egingo du, 5.artikuluaren aipatzen den dokumentazioarekin batera.

2. Udal-zerbitzuek, jakinarazpena eta dokumentazioa jaso eta gero, aztetuko ditu hurrengo egoerak egiaztatzea helburu izanik:

– Dokumentazio gutzia aurkeztu dela.

– Garatu nahi duten ekintza aurretiko jakinarazpenari lotuta dagoela.

Era berean, udal-zerbitzuek egiaztatze-bisita igorriko dute dagokion akta eginez, egiaztatzeko ekintzaren gauzatzerako beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla.

3. Aurreko azterketa egin ondoren, jakinarazpenean hutsunerik balego, interesatuari ekintza ez egitea eskatuko zaio, eta 10 eguneko epea emango zaio hutsunea konpontzeko, ohar bat ere izango du jakinarazteko konpontzen ez badu bere eskaera ez dela onartuko.

Esandako epea igarota ez badu eskatutako dokumentazioa aurkeztu edo ez badio baiezkorik eman eskatutakoari, ebazpen espresiboa emango da esanez aurretiko jakinarazpenak ez duela eraginik izan, eta ebazpenean bere eskaera ez dela onartua izan jasoko da.

4. Dokumentazioa aurkeztu eta gero edo egiaztatze-bisita igorri eta gero baieztatuko balitz garatu nahi duen ekintza ez dagoela aurretiko jakinarazpenaren aplikazioaren barruan edo ez datorrela bat aplikagarria den araudiarekin, udalak interesatuari ekintza Aurrera ez eramatea edo bertan behera uzteko aginduko dio, eta eskatuko dio prozedurari dagokion lizentziaren eskaera egin dezala.

5. Aurretiko jakinarazpena agindu juridikoari egokituta dagoenean, hau aurkezten den momentutik egin ahal izango du ekintza. Ekintza hasi ahal izateko bestelako baimenak eta hasierako kontrolak alde batera utzi barik, arau sektorialekin bat datozenak, aginduzkoak.

6. Aurretiko jakinarazpena aurkezteak, jarduera komertzialaren ekitaldi materialerako gaikuntza eragina izanik, momento horretatik Aurrera, ez ditu aurretik epaituko egoera edo aplikagarria den araudiarenaldintzak tablezieduak etetzenditu eta ez du augauko ahal administratiboen ekitaldia egiaztatzeak ikuskapenak, isunak eta oro har, administrazioari agindu sektorialekin esleitutako edozein arlotan, estalean, autonomikoan edo lokalean, kontrolak.

Aurretiko jakinarazpenak ez du inoiz jardueren ekitaldia baimendukomaraudiaren kontra edo hirigintza-plangintzaren kontra.

**5. artikulua. — Dokumentazioa**

1. Bigarren artikuluaaren arabera, aurretiko jakinarazpena behar duten jardueraren jabeak edo sustatzaileak, jarduera hori aurrera eramateko asmoa duela jakinarazi behar dio udalari 15 egun lehenago, arautuko eskari bidez eta dagokion dokumentazioa erantsiz.

2. Ordenantza honetan aipatzen diren irekiera, instalazio, hedatze edo ekintzen aldaketan kasuan aurretiko jakinarazpena ondoren aipatzen den dokumentazioarekin batera aurkeztuko da:

a) Eskatzailearen N.Aren edo txartel fiskalaren fotokopia. Ordezkarri batek egiten badu eskaera, ordezkarria dela egiaztatzen duen dokumentua.

b) Aurretiko jakinarazpenari lotuta dagoen ekitaldiaren jardueraren egiaztagiriaren autolikidazio ordainagiria, dagokion ordenantza fiskalean dagoena.

c) Garatuko den jardueraren memoria deskribatzailea.

d) Kokatutako planoan eta kokaleku eskalean (E: 1:2000), eta oinplanoa (E: 1:50) zeinetan lokalaren neurriak eta ezaugarriak azaltzen diren, baita kokalekua, sarbideak, suteen kontrako dituzten babes-neurriak eta instalazioak (higiene-sanitarioak, bentilazioa) ere.

e) Establezimenduaren argazkiak (Barrukoak eta kanpokoak).

f) Lehenengo eranskin ereduaren arabera, hirigintza-plangintza betetzen dela adierazten duen ziurtagiri teknikoa.

g) Indarrean dagoen instalazio-araudia betetzen dela egiaztatzen duen ziurtagiria, batez ere, suteen kontrako seguritate araudia. Hau, eraikuntzaren kode teknikoaren arabera, dagokion elkargoak begiztatutakoa, 2. eranskin ereduaren arabera.

3. Proiekturik behar ez duten obrak egiteko, teknikari eskudunak izenpetutako dokumentua aurkeztu beharko da. Dokumentu horrek hurrengo edukia izan behar du, behintzat:

a) Lokalaren deskripzio memoria. Memoria honetan justifikatu beharko da ez dela beharrezkoa proiektu tekniko bat, eta eraikuntza eta banaketa ezaugarriak azalduko dira, baita dauden instalazioak ere, eta garatuko den jardueraren deskribapena egingo da: ordutegia, aurreikusitako zarata eta bibrazio mailak, hauek daokion udal-ordenantza-ara egokituko dira.

b) Aplikagarria den araudiaren eta udal-ordenantza plan orokorraren arabera bete behar diren higieniko-sanitario gutxieneko neurriak betetzen direla azaltzen duen ziurtagiria. Beharrezkoa den komun kopurua eta aurreikusitako aireztapen sistema zehaztuko da.

c) Aplikagarria den indarrean dagoen araudia betetzen dela azaltzen duen ziurtagiria, eta batez ere, irisgarritasun araudia eta eraikuntza kode teknikoaren suteen kontrako seguritatea.

4. Onartutako aurretiko obra-lizentzia izatearen kasuan, hauetarako obra-proiektua eskatzeagatik, aurretiko jakinarazpenaren eskaera egiteko ez da beharrezkoa izango 2. puntu d)tik g)ra ataletan aipatutako dokumentazioa aurkeztea, informazio hau ez baldin badago proiektuan dokumentatua salbuespen izanik.

6. artikulua. — Jardueraren titulartasun-aldaketa

1. Aurretiko jakinarazpen edo lizentzia bidez baimendutako jardueraren titulartasun-aldaketen kasuan, aurreko artikuluetan aipatzen direnak, hedatzerik, aldaketarik edo jardueraren aldaketarik inplikatzeko ez dituztenak, Udalari alde aurretik jakinarazi beharko zaio transmisioa hurrengo dokumentazioa erantsiz:

— Modu egokian betetako eskabidea, aurreko titularrak eta titular berriak sinatuta.

— Titular berriaren N.Aren edo identifikazio txartel fiskalaren fotokopia.

— Ordenantza fiskaletan aurreikusitako likidazioari dagozkien tasen ordainketaren ziurtagiria.



Jardueraren titulartasun-aldaketen jakinarazpenak aurreko titularrak eta titular berriak sinatu behar dituzte, hau barik, biak jardueraren ekitaldien erantzukizunei egongo dira lotuta.

2. Ordenantza honetan 5.1 arikuluan ezarritakoarekin ados, udalak hiritarren esku jarriko du egoitza elektronikoa, betebeharreko eskabidearen eredia.

3. Jardueraren lizentziaren titulartasun-aldaketek ez dute eraginik izango zehapenetan, zuzentze-neurriak hartzeko eskaeretan edo eteteko zein ixteko aginduetan, kasu horretan, lokalari edo jarduerari ezarritakoak eta indarrean zeudenak udalari titulartasun-aldaketaren jakinarazpena egin zen momentukoak izango dira.

Era berean, ez dute eraginik aplikazioa lortzeko espedienteetan, izapidean dauden neurrienak udalari jakinarazi zaionean titulartasun-aldaketa, kasu horretan, udalari jakinarazpena egindako dataren ondorengo ekitaldiak eta izapideak, titular berriari jakinarazi beharko zaizkio.

7. artikulua – Udal ikuskapena eta egiaztapena

1. Interesatuak udalaren eskura izango du beti aurretiko jakinarazpenaren kopia modu egokian beteta eta bestelako dokumentazioarekin batera. Era berean, udal-zerbitzuei jardurara sarbidea baimendu behar die, hauek egoki deritzen ekitaldi, ikuskapen edo egiaztapenak egin ditzaten.

2. Edozein momentutan Udalak, bai ekimen propioagatik, bai aurretik salaketa egoteagatik, aurretiko jakinarazpen erregimenaren barruan dauden ekintzen ikuskapena egin ahal izango du, egiaztatzea funtzionamendua egokia dela, aurkeztutako dokumentazioko datuak edo udal- konpetentzia den beste edozein gai batzuetakoak zuzenak direla helburu izanik.

3. Administrazioak egiaztatzen badu, aurretiko jakinarazpen bati erantsitako edozein datutan edo dokumentutan zehaztasun eza, faltsutasuna edo omisioa erabakiko du jardueraren ekitaldia bertan behera uztea, gertaera hauen berri duen momentutik, erantzukizun penal, zibil edo administratiboak utzi gabe.

Era berean, aurreko atalean azaldutako egoerak aitortzen duen ebazpenak zehaztu ahal izango du egoera juridikoa aurreko uneari jarduera egokiaren hasieran itzultzeko interesatuaren beharra.

4. Egiaztapenaren ondorioz egiaztatuko balitz jardueraren edo establezimenduaren edozein egoeraren erabilera desegokia, udal-zerbitzu eskudunek aurkitutako hutsuneei dagozkien neurriak hartuko lituzkete. Neurri hauek, ebazpen bidez, zuzentzeko neurriak hartzeko agindua edo jarduera bertan behera uzteko agindua eman dezakete, indarrean dagoen araudiaren arabera.

5. Dokumentazio teknikoan datuen faltsutasuna egoteak, izenpetu duen teknikariaren erantzukizuna dela zehaztuko du, espedientearen sustatzailearen erantzukizun egozgarria alde batera utzita.

6. Udal-egiaztapenak egiaztatzen badu garatutako jarduera ez dagoela ordenantza honen barruan araututa dauden prozedimenduen aplikazioan, jarduera lizentziarik gaeb hasi dela ulertuko da, eta ondorioz, bertan behera uzteko agindua izan dezake, eskatzen diren erantzukizunak alde batera utzi gabe.

8. artikulua. – Iraungipena

Aurretiko jakinarazpenaren bidez aitortutako jardueraren ekitaldirako eskubidea iraungiko da, interesatuari aurretik jakinarazita, aurretiko jakinarazpena aurkeztu zenetik 6 hilabete igaro ondoren ekitaldia hasi ez denean, edo 6 hilabetean jardueraren etete eraginkorren kasuetan.

Era berean, aipatutako epean iraungiko da ordenantza honek aipatzen dituen obrak egiteko eskubidea, interesatuak jakinarazpen idazkian adierazitako aurretiko jakinarazpenaren datan edo obrak hasteko datan.

**9. artikulua. — Urratzeak eta zehapenak**

- Urratze administratibotzat hartzen dira ordenantza honetan hau urratzen duten ekintzak eta ez-egiteak, baita aginduei desobedientzia dakarten haiek eta beraren aplikazioko udal-administrazioaren eskakizunek.
- Urratze larriak izango dira:
 - Aurretiko jakinarazpena ez aurkeztea, edo bertan jasotzen diren jardueraren ekitaldirako aurreikuspenak edo administrazioak ezarritako baldintzak ez betetzea.
 - Aurretiko jakinarazpenari erantsitako dokumentu, adierazpen edo datuetan zehaztasun eza, faltsutasun edo omisioak izatea.
 - Eragozpenak ikuskapen edo kontrol jardueren gauzatzean.
 - Ez betetzea eskudun agintariak emandako jarduera uzteko agindua.
 - Administrazioari jakinarazi ez zaizkion jarduerak egitea, arautuak ez direnak.
 - Ez betetzea ezarri diren zuzentze-legeak.
- Hutsegite arinak izango dira:
 - Administrazioari jakinarazi ez zaizkion jarduerak egitea, Arautuak ez diren jarduerak.
 - Jarduera edo arau-hauste larri bezala tipifikatutako omisioak, bere garrantzi edo esanahi urriagatik, baita hirugarren interesatu batengan izan dezakeen eragin eskasagatik ere, ez direnean larritzat sailkatu behar.
 - Ordenantza honetan eta araudi aplikagarriaren arabera, arau-hauste larri bezala tipifikatuta ez dagoen beste edozei hauste.

10. artikulua. — Arau-hausteen erantzuleak

1. Arau-hausteen erantzule dira:
 - Jardueren titularrak.
 - Dokumentazio teknikoa izenpetzen duten, edo indarreko araudirako jardueraren egokitze-ziurtagiriak igortzen dituzten teknikariak.
2. Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak persona bati baino gehiagori dagokionean, edo arau-haustean parte hartu duten pertsonen parte-hartzea ezin denean neurtu, arau-haustei eta ezartzen diren zehapenei modu solidarioan erantzungo diete.

11. artikulua. — Zehapenak

Apirilaren 2ko, erregimen lokaleko oinarrien erregulatzailer den 7/1985 legearen, 141artikuluaren arabera, ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteen komisioak, hurrengo zehapenak ezarriko ditu:

- Urratze larriak: 1500 euro arte.
- Urratze arinak: 750 euroko isuna arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILE

Bakarra: Ordenantza honetara egokitzen ez diren aurreko udal-xedapen guztiak indargabetuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa: Apirilaren 2ko, erregimen lokaleko oinarrien erregulatzailer den 7/1985 legearen, 70.2 eta 65.2 artikuluen arabera, ordenantza hau indarrean sartuko da Lurredeko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik 15 egun baliodunetara, udalbatzairen osoko bilkurak behin-betiko onartzen duenetik.

Bakion, 2017ko abenduaren 28an. — Jarduneko Alkatea, María Isabel Barturen Lasa